



jakinbai.eus

heziraul.eus

lhdualaeuskaraz.eus

[Ekinbira sitea](http://Ekinbira.sitea)

943 376 532

jakinbai@jakinbai.eus

HIZKELAN JARDUNALDIA

Urriaren 14an izango da, Lanbide Heziketa eta lana euskaraz gaitzat hartuta antolatzen den Hizkelan jardunaldia



9:00 HARRERA – PHOTOCALLA

9:15 SARRERA

Simón Sánchez, Francisco de Vitoria BHI-ko Zuzendaria
Jon Labaka, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordea
Joseba K. Pérez de Heredia, Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaria
Ainitze Blanco, Lanekiren Presidentea.

HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA 18. GJHa 2030eko AGENDAN

Asier Aranbarri, Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaria.

EUSKARAREN ETA HIZKUNTZEN IKASKUNTZARAKO INSTITUTUA

Josune Zabala, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren Zuzendaria

ADIMEN ARTIFIZIALA IRAKASLEON JARDUNA ABERASTEKO BIDE

Aritz Odriozola, Tknikako Eraldaketa Digital Alorreko Kidea

11:30 Atsedena

KOMUNIKAZIO IRISGARRIAREN GAKOAK

Kizkitza Velasco, Arabako Gorrak Elkarteko Lehendakaria
Nerea Zelaia, Komunikazio Bitartekotza Goi-mailako Zikloko Irakaslea
Nerea Unzueta, Komunikazio Bitartekotza Goi-mailako Zikloko Irakaslea

EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOA

Ahize-AEKren teknikariak
Gorka Martin, Egibideko Hizkuntza Normalkuntzako Teknikaria
Xabier López de Santiago, Egibideko Berrikuntza Zuzendaria
Oskar Garcia, HIGaren koordinatzailea

LANBIDE HEZIKETAREN ETA LANTOKIEN ARTEKO ZUBI LANA ETA LANTOKIKO DUAL EGONALDIAK EUSKARAZ SUSTATU

"Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu", Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzua

13:00 HIZKELAN OROIGARRIA eta AGURRA

Iria Cordovilla eta Oihán Aristizabal abeslariak / Josune Velez de Mendizabal aurkezlea



[Animatu eta izena eman](#)
[\(epemuga: urriak 2\)](#)

IKASMATERIALAK ITZULTZEKO ESKAERAK EGIN

Lanbide Heziketako ikasmaterialak itzultzeko edota zuzentzeko eskaerak egiteko epea ireki da

Eskaerak egiteko [galdetegia](#) / Epemuga: urriak 31

Eskaeren jarraibideak:

Ikasmateriala izan daiteke Goi Mailako Heziketa Ziklokoa, Erdi Mailako Heziketa Ziklokoa edota Oinarrizko Lanbide Heziketakoa.

Eskaera egin aurretik ziurtatu material hori edo antzekoren bat jadanik sortuta ez dagoela. Horretarako begiratu materialen atala www.jakinbai.eus atarian, Eima katalogoan edo materialak dituen beste euskarriren batean.

Eskaera egin nahi duen irakasleak, ikasmateriala ongi aztertu behar du. Eta inolaz ez du proposatuko Giza Eskubideen kontrako edukiak (eduki sexista, homofobia, arrazista edo bestelako eduki iraingarriak) dituen materialik. Edukien ardura eta erantzukizuna ikasmateriala eskatu duen irakaslearena da.

Ikasmateriala osorik itzultzeko eskaera egiten da galdetegi honen bidez, hau dela eta, testuliburu osoak izan behar du erabilgarri.

Eskaerak jaso ondoren, aztertu eta barematu egingo dira, ondorengo irizpideen arabera:

- Euskaraz ematen den modulua izatea
- Goi Mailako Heziketa Zikloa izatea
- Euskaraz matrikulatutako ikasle kopurua
- Euskarazko materialik ez izatea
- Liburu osoa izatea
- Irakasle artean adostua izatea
- Ziklo baten baino gehiagotan erabiltzea

Baremazioaren ondorioz, lehentasunaren arabera zerrendatuko eta itzuliko dira. Eskatutako ikasmaterialen bat itzuli gabe geratu daiteke.



jakinbai.eus

heziraul.eus

lhdualaeuskaraz.eus

[Ekinbira sitea](#)

☎ 943 376 532

jakinbai@jakinbai.eus





jakinbai.eus

heziraul.eus

lhdualaeuskarak.eus

Ekinbira.sitea

943 376 532

jakinbai@jakinbai.eus

MATERIAL BERRIAK

Enpresa-protokoloa

Jakinbai Laneki — 2025/09/03



Ibilgailuaren mekanika

Oinarrizko Heziketa Zikloak

Jakinbai Laneki — 2025/09/03



Behe-tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa eta haren Jarraibide Tekniko Osagarriak - BTEE

842/2002 ED, 2002ko abuztuak 2koa. Honako hauen bidez eguneratua: 560/2010 ED (omnibus legea). 1053/2014 ED, ibilgailu elektrikoak birkargatzeko azpiegituri dagokien (aurrerantzean, IEBA). 2015eko urtarrilaren 26ko ebazpena, sekzioen kalkulari dagokien. CPR erregelamendua, kable elektrikoaren suarekiko balizko erreakzioari dagokien. 244/2019 ED, autokontsumoari dagokien. 2020ko urtarrilaren 9ko ebazpena, UNE arauari dagokien. 542/2020 ED, IEBAei buruzko artikuluen aldaketari dagokien. 298/2021 ED, instalatzaileen eskumen berriei dagokien. 450/2022 ED, IEBAei buruzko artikuluen aldaketari dagokien. 145/2023 ED, elkarrekiko aitortzenari dagokien.

Jakinbai Laneki — 2025/09/01



Produktzio-sistemari aplikatutako jasangarritasuna

Honezko makina bat aldiz entzungo zenuen munduko ekosistema arriskuan dagoela, jasangarritasunari ekitate gutako bakoitzaren kontua dela, eta ez dagoela denbora askorik helburu hori lortzen saiatzeko. Baina, zergatik estutzen du denborak jasangarritasunaren arloan? Zer erronka konpondu behar ditugu garapen jasangarriaren bideari urrats irmoz ekitateko? Zer da jasangarritasuna? Eta garapena? Hasteko, geure buruari galdetuko diogu zer den ekosistema bat eta zergatik den hain garrantzitsua gizarteontzat ekosistema horiek behar bezala funtzionatzeko. Horri emaniko erantzunarekin jarraitu ahaliko dugu gainerakoei erantzuten. Orduantxe ikusi ahal izango dugu zer arrisku dituzten ekosistema horiek, bai eta guk geuk ere, haiek bezalaxe. Hala, argiago edukiko dugu zer egin dezakegun auzi horri dagokionez. Eta ez da gutxi.

Maramara* taldea itzulpen zerbitzuak — 2025/07/29



Kontabilitatea eta Fiskalitatea

Kontabilitatea eta Fiskalitatea ikasmaterial hau Administrazioa eta Finantzak goi-mailako moduluari dagokio. Dokumentu honetan jasotako informazio guztiak Kontabilitate Plan Orokorrean (KPO) oinarrituta daude.

Jakinbai Laneki — 2025/07/23



Lorategiak eta berdeguneak

Lanbide Heziketako erdi-mailako Lorezaintza eta loregintza zikloan kokatzen da lan hau. Hain justu "Lorategiak eta berdeguneak mantentzea eta hobetzea" modulurako prestatutako materiala da, irakasleentzat eta ikasleentzat baliagarri izan daitekeena.

Jakinbai Laneki — 2025/07/23



Irrati-komunikazioen instalazioak

Liburu honen helburua da gaur egun erabiltzen diren sistema-, elementu- eta teknologia-moten ikuspegi zabal eta praktikoa eskaintzea. Horrela, ikasleak etengabe garatzen ari den sektore batean laneratzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta trebetasun teoriko-praktikoak eskuratu ahal izango ditu. Liburua hamar unitatetan antolatuta da. Unitate horietan, Irrati-komunikazioen instalazioak eta mantentze-lanetako teknikariaren profilarik alderdiekin lotutako edukia aurkezten dira. Edukiekin batera argazki asko eta proposatutako jarduerak eta kasu praktikotako ugarri daude, edukia errazago ulertu, aplikatu eta hedatzeko.

Euskalgintza — 2025/07/16



Automatizazio Industrialeko Sistemen Integrazioa

Liburu honetan Automatizazio industrialeko sistemen integrazioa lanbide moduluak edukia garatzen dira, Automatizazioa eta robotika industriala izeneko goi mailako zikloaren Heziketa Ziklokoa, zeina Elektrizitatea eta Elektronika lanbide familiarri dagokion.

Jakinbai Laneki — 2025/06/27





jakinbai.eus

heziraul.eus

lhdualeuskaraz.eus

[Ekinbira sitea](http://Ekinbira.com)

☎ 943 376 532


jakinbai@jakinbai.eus



EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA



AUTOMATISMO HIDRAULIKOAK: METAGAILUAK BIDEOA



[Metagailuak bideo hau](#) Automatismo Hidraulikoak bideo sortaren parte da eta bertan metagailuak zer diren azaltzen da.

Ziklo industrial guztietan erabiltzeko da, eta bereziki ondorengo lanbide-familiatan:

- Instalatze eta mantentze lanak
- Fabrikazio mekanikoa
- Elektrizitatea eta elektronika.

Egileak: Miguel Altuna LHII-ko Xabier Bastida eta Xabier Astigarraga

Bide grabaketa eta edizioa: Denada Estudioa

Babesleak: Miguel Altuna LHII eta Laneki elkartea

Eskerrak: Danobat eta Parker

Lizentzia: CC-BY-SA-NC



jakinbai.eus

heziraul.eus

lhdualaeuskaraz.eus

Ekinbira sitea

☎ 943 376 532

jakinbai@jakinbai.eus



EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA



LANBIDE HEZIKETAKO MATERIALAK EUSKARAZ

LANBIDE HEZIKETAKO MATERIALAK EUSKARAZ

LANBIDE-FAMILIA GUZTIENTAKO MATERIALAK

jakinbai.eus

Testuliburuak,
bideotutorialak,
aurkezpenak, etab.



Azpimarratuak



Heziraul



Ekinbira



Sareak



Automatismo
Hidraulikoak



Ikusgela



Hiztegia



LH Duala
euskaraz

MATERIALAK ESKURATU

Erabiltzaile gisa erregistratuta.

ESKAERAK EGIN

Materialak itzultzeko, zuzentzeko, sortzeko
edota partekatzeko.



Bideoa

KATALOGOA IKUSI

Material berrien eta lanbide-familia
bakoitzeko materialen zerrenda
kontsultatu.



Katalogoa

JARRI GUREKIN
HARREMANETAN

jakinbai@jakinbai.eus

☎ 688 75 85 69



[Ikusi azalpen bideoa](#)